

BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
75n. ZENBAKIA  
ORRILLA  
1984



*Manuel Lass*

DIRECCION GENERAL DE COMUNICACION PERIFERICA  
Entregados ejemplares el día 11 Mayo 1984  
*Vizca*



**ARA NUN DIRAN  
MENDI MAITEAK  
ARA NUN DIRAN  
ZELAIK**

# IDAZTITEGI BARRIA

Aspaldiko urteotan, lenagokoak gitxi ba'ziran, ainbat edatetxe ugaritu da gure errietan; Galdakano'n beintzat, geiegi gure ustez; baiña, eskubide osoa dau bakoitxak erazen dauan irabazpiderik egokien ean bere txinditza eralgiteko. Udalbatzak, Aldundegiak eta Euzko Jaurlaritzak ez dabe zein eginkizunek emon leikegun irabazpide geiago edo gitxiago esaten, zer izan litzaken erriak bearren dauana lortzeko jardun baiño.

Eta, orixe da geien baten Udalbatz abertzale geienak egin dabena Aldundegi ta Euzko Jaurlaritzaren laguntzaz.

\* \* \*

Ainbat urte da Galkano erri-idaztitegia eukala, baiña, igaro zan Dagonilla'n izan ziran uriolak guztiz ondatu eben eta, ordutik ona diarduen udal-gizonak, geien baten jeltzaleak, idaztitegi barri bat antolatzen ziarduen eta, azkenez, lortu eben udal-etxetik urbil, Bizkai-kalea eta Muguru'n bitartean gertu, eta azkenengo Gabon-aurretxuan onetsi ta idegitea, Jakiña! Aldundiaren eta Euzko Jaurlaritzaren laguntzaz.

\* \* \*

Beste askotan lez, bertan izan nintzan orain egun batzuk eta, beratan zuzendari bezala egiten dauan Orbe'tar Gotzone neskati lirain azkarragaz izan neban alkar -izketa labur baiña jakingarri bat:

—Gotzone, idaztitegi onen goraberarik urtenen batzuk jakin nai neukez, zerbaitzuk idatziteko.

—Bai ta pozik:

—Zenbat anei neurkin ditu areto zabal argi onek?

—Esan daustenez, irureun da larogei (380) zerbait geiago neurkin laukotu, alkar mugatuta aurkitzen diran iru zati oneitan.

—Zenbat idazti daukoguz idaztitegi onetan eta, zenbat euzkerazko eta zenbat erderazko?

—Guztira lau anei, milla, oraintxe. Euretatik eunek ogei ta amar euzkerazkoak.

—Zenbat irakurle inguru dira bertan eta, zeintzuk dira geien irakurten diran idaztiak?

—Berreundik gora irakurle, ikusten dozenez, eun da berrogei ta amar egon litzakez jesarrita. Irakurten dana, nagusiak geien bat, ele-berri ta zerbait edestia, lutelestia eta bizi-kondaira. Gaztediak, batez bere ikasleak, ikas-idazti edo ikas-liburua. Eta gaztetxuak, umeak, euri egokien jatorkiezan idaztiak baiña ez «tebeorik», kendu egin dautsuguzalako.

—Zenbat bazkide dira idaztitegi onetan eta, zenbat ordaindu bear da?

—Seireundik zerbait geiago dira. Eta ordaindu, ez da batbere egin bear, berau erriarena eta danontzako da-ta. Gaiñera, bazkideak etxean irakurteko eroan leikeeta egiten dabe, idazti bakoitza, amabost egunarako. Idazti orretatik gaiñera zeuk ondo ikusten dozenez, Bizkai'ko egunkari guztiak daukaguz eta bai ZER, «Goiz-Argi», «Euzkadi», «Principe de Viana» ta beste aldizkari irakurgarri batzuk, irakurleen lagungarri.

—Ederto Gotzone; ikusten dodanez beste emakume bat be ba-dozu emen laguntzalle.

—Bai, or dot Manzanaz'dar Karmele, geien baten gaztetxuen arduradun, nai-ta begirune aundiaz irauten daben, umeak dira eta, zur egon berra izaten da eurakaz, okertu ez daitezana.

Danon atsegiña egitea oso gaitza da, ea eziña, baiña Udalbatzak, Aldundegiak eta Euzko Jaurlaritzaren abertzaleak egin daben lana arlo guztietan, oso aundia izan da azkenengo lau urte onetan. Eta, zelan ez jakintza arloan? Baiña, aundiagoa izan bear dau aurrerantzean, batez be euzkera ta euzko-jakintzan, orren bitartez beste abenderri aurreratuakaz bardindu al ba'dogu Euzkadi.



# AGUR NAPARROA!

Naparroa! Lugiñen lurraldea! Oraintsu langintzara biurtua! Agur!  
Lurralde leuna ziñan eta erbestetarrak zugan aurkitu eben sarritan bizi-lekua, iparralde menditsuan  
be ara ta ona ibiltari ebiltzela. Agur Naparroa!

\* \* \*

Eneko Aritza aundiak sortu eban zugan euskal-erreñua!  
Eta zugandik sortu Gaztela ta Aragoi'ko Errege-Etxeak!  
Aundietan aundiena zara, Naparroa! Agur Naparroa!

\* \* \*

Erromatarrak zure soloak landu ebezan eta eurakandik izan eban aurrerapena zure lurgintzarako za-  
letasunak!

Godoak zure soloetan aurkitu eben bizi-lekua ta burruka-lekua!  
Arabiarrak udaldi beroetan sartu ziran zure gari-arteetata eta zuk Sara'ren eskuz il zenduan Abderra-  
man Erronkariko Zubi-gaiñean. Agur Naparroa!

\* \* \*

Eneko Aritza'sortutako erreñua! Etxeko ta kanpoko erregeen menpean aibeste urtetan, gizalditan,  
euskaldun izan zaran Naparroa. Agur Naparroa!

Errege Katoliku izenez zanak, maltzurkeriz eta guzurrez oinperatua, Lerin'go Kondeak salneurri  
merkez saldua, Agramonte ta Beamonte'tarrak odolez gorritutako lurralde mindua. Agur Naparroa!

\* \* \*

Bizi zara! Eta urte askotan, gizaldi luzeetan bizi zaitezela.

Ez zarala Euzkadi diño! Baiña zure abizenak eta toki-izenak, eta zure kondaira luzea lekuko! Eta ori  
naikoa ez ba'litz, zure odol euskalduna daukazu euskaltasuna izenpetzeko!

Iparraldean eta Egoaldean bizi zara, Auñamendi aundia bizkar dozula! Baiña zu Naparroa bat zara,  
Dana Naparroa, dana euskalduna! Agur Naparroa!

\* \* \*

Or diardue «Sozialistak» eta «Aliantzistak» zure jaurlaritzara eskuratu naian, Jeltzaleak al dan eran ara-  
zoak konpondu gurean. Naparroa! Arriskuan zagoz! Euskaldunak gara, Euzkadi gara! Agur Naparroa!

\* \* \*

Errialde asko galdu dauz Euskeraz berba egiten eban gizonak Akitania-aldean, Santander aldean,  
Burgos-aldean, Aragoi-aldean Oska'ko inguruetan, Logroño aldean... Aginkada ederrak egin dautsoez gure lu-  
rrari inguruetako txakur aginkalariak, baiña euskal-Arranoak egaz egiten ba-dausku, ori litzake gutzat  
kondaira-barruan galtzerik aundiena. Naparroa! Euskaldun zara! Alkartu gaitezkan Euskalerrriaren barruan,  
anaitasun-giroan, bardintasunean, maitasunean! Agur Naparroa!

Euskalerrria zati bi eginda egoan, Iparraldean eta egoaldean atzerritarrak ezarri eben muga gorrotaga-  
rria bide dala. Irugarren zatia izango ete da Naparroa? Batzeko ordua eldu danean, zatitzea etorriko ete da?  
Naparroa-Naparroa! Egin dagigun Euskalerrria! Agur, Naparroa maitea!

# **GURE JOSEBA**

## **(Nintzan eta Gorputz-atalak)**

### **AMABI URTEKOA ZAN**

Joseba anaia zan gure gogoan, aurreko idaz-lanean.

Joseba nire anaia zan, amabi urteko anaia bera, ni amar urtekoa nintzanean.

Umetako lagunak eta umetako jazokizunak ez dira ain errez aiztuten.

Orrillaren bigarren eguna zan. Anai biok olloentzat toki berezi bat egiten ibilli giñan eta amaren deia entzun zan:

—Joseba! Zoaz errira ta ogia ekarri.

### **ERRIRA JOAN ZAN**

Joseba ez zan errira joaten zalea, etxe-zalea zan, baiña amaren esana egitearren joan egin zan.

Ni etxean geratu nintzan, oilloak zaintzen. Egun aretan ez gintzazan eskolara joan, orrillaren bigarren eguna askatasunaren edo ez dakit zelako jabetasunaren eguna (día de la independencia) zalakoa.

Guda-osteko lenengo ille batzutan ogi zuria zan erostekoa eta Joseba etxerantza etorri zan ogiagaz. Bidean kamioi zar bat agiri zan aldatza igon-eziñik eta bertara igon zan.

### **ERRUKARRI GERATU ZAN**

Etxera joateko bidearen parera eldu zan eta salto egin eban, kamioia geratu barik: Bide zabalean luze geratu zan gizajoa: Mutiko ederra, lodikotea, azur-zabala,

ule-gorria, ez gorputzez luze-luzea... bere berbetan zizi-paza apur bat entzuten zan. Bide ertzean errukarri geratu zan, gizajoa, eta auzoko gazte batzuen etxera sartu zan gazte onein eskuetan.

Bere begi urdiñak itxita egozan eta ezpanen artzetik odol apur bat urteten ikusten zan. Ezker-aldeko saietz-ingurua baltz agiri zan, baiña azurrak guztiak osoak ziran bere gorputzean. Berbarik ez zan entzuten bere agotik, baiña begiak aldizka idegita ikusten ziran.

### **GAISO-ETXERA JOAN, ZIRAN**

Basurto'ko gaiso-etxera eroan zan osatzen zan ikusteko, baiña osagilleak itxaropen barik egozan eta jaramon aundi barik geratu zan gaua igaroteko gaiso-etxeko ogean.

Kanpotik gorputza osorik agiri izan arren, barruko zauriak aundiak ziran, gibela edo guntzurrunak edo olako zeozer zaurituta, antza.

Goizaldean, eguna argitu baiño lenago, etorri ziran gure etxera Joseba ekarteko laguntzaille izan ziran gizonak eta etxera eldu zan une aretan il zan Joseba. Gure etxeko samintasuna ta negarrak neurri bakoak izan ziran.

### **ETXEAN GERATU NINTZAN**

Orrillaren laugarren egunean izan zan illetea, goizeko amar eta

erdietan. Ni entxean geratu nintzan, umea nintzalako eta Joseba'ren gorpua aldapan gora errira eroaten ikusita, negarrez geratu nintzan neu be. Utsik geratu zan gure etxea.

Ituna benetan, errirantza Joseba'ren gorpua eroteko egin zan ibilbidea: aurretik otzaradun andrea, gero kurutzeduna, urrengo abadea eta onen ondoren ilkutxa zuriagaz eskolako ume-lagunak, kutxaren ostean aita ta gizonak eta azkenez ama ta andrak.

Errian eskolako ume lagunak egozan, batzuk negarrez, beste batzuk aurpegi illunaz.

### **ILLETA-OSTEAN BAZKARIA EGIN ZAN**

Illeten ostean, orduko oiturea ran, kofradikoenak, iru meza abestugaz eta beste batzuk laburragoak, arantzelekoenak. Gu arantzelekoak giñan eta laburra egin zan, meza abestu bategaz.

Ollaten ostean, orduko oiturea zan lez, bazkaria egin zan, aita eta ama be bertan zirala.

### **UITSUNEA BETE BARIK GERATU ZAN**

Gure ama orain sei urte il zan, larogei ta bost urtekoa zala eta Joseba aitatzen zan bakoitzean negarrez asten zan beti: Joseba'ren utsunea etxean betetu barik geratu zan.

MARTINTXU'k

## ERRIA GUREKIN? EZ

Azkatasuna bidean  
ERRI BATASUNA,  
JEL ALDERDIA'gandik  
urruntxo dagona;  
«Erria gurekin» da  
beraien esana,  
baña ondo dakigu  
guzurra doguna,  
JEL Alderdi'ren alde  
geienen zentzuna.

Kaletan didar asko,  
baña auteskundetan  
ixilleko botua  
JEL'entzat benetan;

orain artean beintzat  
aldi guztietan,  
beti bera garalle  
alderdi danetan,  
gure Euskal-Erriko  
erri geienetan.

Bakoitzari berea  
emon bear jako,  
egia maitatuaz  
beti ortarako.  
Jainkoari eskatuz  
apaltasun naiko,  
iñon garaitasuna

zintzo autortzeko,  
egiaren maitale  
nunai agertzeko.

JEL Alderdi berak be  
Egiari eutsiz  
arrokeri bidetik  
egin begi igesi;  
alkar maitasunean  
bizitzen ikasi,  
norberena goralduz  
iñor ez ezetsi,  
ABERTZALETASUNA  
IZAN DEIN NAGOSI.

LERTIBE

## LAN EUSKERAREN ALDE

1. *Ardurabako eta nagiak  
euskaldunak batzuk dagoz.  
Beste batzuk, bai, euskera alde,  
lanera poz-pozik, datoz.  
Ez da neikoa izkuntza alde  
pizkat ein, bakarrik agoz.  
Eskatzen yaku lan ein daigula  
arduratsu, biotz-oso.*

2. *Gauza bat maite, bene-benetan,  
biotzez eiten danean,  
emoten yako, lana, denpora,  
baita dirua, ganean.  
Itxartu zaitez, euskaldun ona,  
ekin egizu lanean.  
Ez dau besterik, lan egin baño,  
oraingoko egunetan.*

3. *Gure eskuetan ipiñita da  
erriko etorkizuna;  
eta ara nundik ein bear dogun  
bere alde dakiguna.  
Errien bizitz eta izakera  
da eskuetan doguna.  
Alkar indartu, alkar lagundu,  
au zer-egin daukaguna.*

4. *Olan ta alan, al dan bezela,  
ekin daogun lanari.  
Eta emon danok bultzada on bat  
gure erriko izkuntzari.  
Frutua orain, jaso ez arren,  
lagun beti euskerari.  
Gerokoak, bai, jasoko dabe.  
Itxi, ba, datozenari.*

ARGINTXONA

# "UN MINUTO DE SILENCIO"

Etzaitetz arritu, irakurle, erdel-izenpuru onegaitik. Itzez-itx izan ba'neu euskel-senik ez leukake, arean. Biurkera askatua bere egin negikeon. Baiña, ez! Bego dagoanez; ez dogu, ba, euskelduna ez kistarra be lau erdel-itx orrein esangurea-ta.

Bein baiño sarriago ikusi izango zenduen eta egin bere bai, bear ba-da, beste batzuk bere egiten dabela-ta, zer dagizuen konturatu be egin bagarik, siniste bagakoen «un minuto de silencio» ganorabagako ori.

\* \* \*

Norbere eretxikizunik ez dauanak beingoan alakotu be egin daroaz besteak egin daroezan egikizunak, nundikoak doguzan, zentzunezkoak ala zentzun bakoak diran, txarrak, onak ala Jainko-ukatzailleak diran, kistarrak gareanez egin ete-geinkezan eta abar gogoratu be egin barik.

Eta tamalgarria dogu, euskeldunon artean be olango gogo-epel eta norbere eretxikizun bagakoak ugari izatea.

Eta, ez diñot ezikasikaitik bakarrik; gizaseme ta emakume ikasiak, naiz euren buruak landutzat dabezan asko bere ba-dira ba, zoritxarrez, olangoen artean.

\* \* \*

Illen bategaitik ixillune ori egitea, Jainko-ukatzaille ta sinismen bageak ekarria dogu, aurki, gure artea; eta ori ontzat artzea zorakeria baizen siniste-epelkeria dogu guretzat, kristiñauontzat.

Guk, kistarrok, geure siñismenak irakasten dauskunez, ondo dakigu, ixillunek eta olango lelokeriak illen alde egin zein egin ez bardin-bardin daitena. Ari-

*Ene!... Nire gogoaren zauria!...  
Senda ezindako zauri gordiña!  
Alai agertzen nazala?*

*Ene... Baiña, nire zauria,  
osa ezindako zauri sakona.  
Gudu ta eritegiak,  
atxillo-zelai ta baitegiak  
ezarritako zauri  
osatu eziña.  
Bizitza guztirako  
illuntasuna ezarri  
eusten zauri ankerra.*

*Poztu egin gura neuke,  
baiña ezin  
Odola dariola ta minbera  
daukadaz, ba, gogoata biotza.*

*Au zauri osa-eziña!...  
Gaztea nintzan,  
gotargi ta pozezko gaztea;  
baiña, espainarrek ezarri  
euskuen gudu ankerrak  
zauri nenduan,  
sakonkiro ta erailkor.  
Eta, arez gero,  
goibel nabil,  
goibel eta oldozkor,  
mundua-zear neure  
izatearen bizi-poza  
neugandu eziñik.*

*Poztu egin gura neuke,  
baiña ezin.  
Aberriaren zoritxarra  
alde arte ezin  
izango dot, ba,  
oiu alairik egin.*

*Erio'ren aurrean  
enaz izan iñoz  
zidor estuetan bildur;  
Euskalerrriaren  
askatasuna daite, bakar,  
zauri minberon osakizun.*

AURRAITZ

marik ez dogula diñoen buru-beroak egin dagikeez olango zorakeriak; baiña, guk geuk, ez, siñismenik baldin ba-dogu, beintzat.

Kristiñauok lotsatu-edo egiten gara, sarritan, geure sinismenaren arauz jokutzen eta oben egin oi dautsegu edozein siñiste bagako edo siñiste epelekoen esan eta egikizuneri. Gure artean benetako kistarrak ete-dan uste daiteke Jainko-ukatzailleak or zear egin daroezan siñistekeriak ontzat artzen eta egiten biotz-urri asko oarturik.

Ba-dakigu, kristiñauok (jakin bear genduke, beintzat), «un minuto de silencio» ta olako ganorabakeriak ontzat artzea txoriburukeria baizen baztergarria doguna. Besteak ez dira lotsatzen euren alperreko ixilluneak illakarren egiten; eta guk, alakoetan, zer dala-ta ez *Geure Aita* bat edo beste zeozer, abotszoz, otoitz egin, geure siñismenak irakasten dauskunez? Aunek bai, otoitz egiteak, ba-dau onurea, ta aundia izan bere, askoren artean illen alde otoitz egiteak. Zeruko Aitari zeozer eskatzeko batu gaitezanean, jadetsi egingo genduala Agandik, esan eban Kristo'k, bera bere geure artean izango genduala-ta. Beste egikixunak, lelokeriak doguz, ba, guretzat geuretzat, siñismendunontzat.

Gagozenen artean gagozala, ikasiko al dogu benetako kistar eta euskeldun zintzoak izaten lotsakizun eta besteen esamesak gora-beera.

«Un minuto de silencio» txepel eta siñiste bagakoen egikixun ori, ez dogu, ba, ez kristiñaua ez euskelduna.

AURRE-APRAIZ'TAR BALENDIN

## GOGO ZAURITUA

# BIZKAIEREAREN ASTEA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA euskerea erabilteari indarra emoteko sortu zan eta orretarako egiten dau bere lana, orretarako da bere ekiña.

Baiña zori txarrez, erriko euskerea kendu eta erritarrak gatz egiten jaken euskerea erabilten dalako, gure izkuntzaz berba egiteko gaiztasun bereziak sortu dira, batez be guraso ta seme alaben ar-

tean eta izlari ta entzuleen artean edo irakasle ta ikasleen artean alkar ulertzeari oztopoak ipiñi jakozelako.

Orregaitik guk erriko euskerearen alde jokantzen dogu eta Bizkai'ko **Euskerazaleak**, jakiña, Bizkai'ko Euskerearen alde.

Baiña nondik sortu da euskaldi eder dau? Zein da beronen kondaria? Zeintzuk dira barruan daroazan edertasunak?

Nondik datoz bere aurrerabidean aurkitzen dauzan eragozpenak? Nortzuk eta zelan idatzi dabe bizkaieraz? Orra or guztiontzat jakingarri diran gaiak.

Jakingarri orrek zabaltzeko ta oiñarritzeko, **BIZKAIEREAREN ASTEA** eratu dogu aurten, urrango urteetan be erazten jarraitzeko ustea dogula. Ona emen aste onen jakingarriak:

**NOZ:** 1984'ko orrillaren 14'tik 18'ra, arratsaldeko 7,30'ean.

**NON:** Bilbo'n, Rekalde'ren ibiltegiako 19'an dan Eskolapioen Ikastetxean.

**LENENGO EGUNA:** Orrillak 14, (Astelena).

**GAIA:** EDESTIZKO TA BARRU-MIÑEZKO OLERKIA (Epika ta Lirika) bizkaierearen elertian.

**GAIAREN ATALAK:** \* Kopla zarrak bizkaieraz. Maite-leloak. Illetak, abestiak...

\* Agozko elertia arlo onetan.

\* Idazlerik ospetsuenak.

\* Gaurko elertiaren giroa edestizko ta barrumiñezko olerki-saillean.

**IZLARIA:** Onaindia'tar Santi aita.

**BIGARREN EGUNA:** Orrillak 15 (Asteartea).

**GAIA:** EUSKERA BIZKAI'KO KRISTIÑAU-IKASBIDEAN.

**GAIAREN ATALAK:** \* Eleizetako euskerearen indarra, errietakoa zaintzeko.

\* Kalagorri'ko Gotzaiñen jokabidea.

\* Izlarien lana, Frai Bartolome eredu dala.

\* Kristiñau-Ikasbiderako liburuen kondairea.

**IZLARIA:** Rementeria'tar Jose M.<sup>a</sup> jauna.

**IRUGARREN EGUNA:** Orrillak 16 (Eguastena).

**GAIA:** ANTZERKIA BIZKAI'KO EUSKAREN.

**GAIAREN ATALAK:** \* Erri-antzerki zarra: Aratusteak.

\* Eleiz-antzerki zarra: Ikuskizun edo misterioak.

\* Barrutia'ren gabonetako ikuskizunaren gaia, euskalkia ta euskerea.

\* Bizkaiereak izan dauzan antzerkigile ezagunak.

\* Azken urteetako antzerkia Bizkaia'n.

\* Antzerkia, zinea ta urrutikuskiña: Etorkizuna.

**IZLARIA:** Zubikarai'tar Augustin J.<sup>a</sup>

**LAUGARREN EGUNA:** Orrillak 17 (Eguena).

**GAIA:** ELEBARRIAK BIZKAI'KO EUSKERAZ.

**GAIAREN ATALAK:** \* Pəru Abarka elebarria? Lenengoa? Zergaitik?

\* Txomin Agirre'ren Auñamendi'ko Lorea'ren azterpena.

\* Kresala'ren euskerea, joskerea, elebarri-balioa.

\* Josetxo, Etxeita'ren elebarria.

\* Gaurko giroa elebarri-arloan Bizkai'ko Euskaldian.

**IZLARIA:** Akesolo'tar Lino aita.

**BOSTGARREN EGUNA:** Orrillak 18 (Barikua).

**GAIA:** ESKRIBAUAK ETA EUSKERA LEN ETA GAUR.

**GAIAREN ATALAK:** \* Eskribauen agiriak eta euskerea.

\* Agiriak euskeraz egiteko eragozpenak.

\* Lege arrunta tar lur lauetako legea.

\* Etorkizuna nondik nora.

\* Bizkaiereari buruz zer?

**IZLARIA:** Urrutia'tar Ander.

Ba-dira beste gai batzuk aste onetan aztertu bearrekoak, eta lenengoa bear ba'da, euskalkiak eta bikairea nondik sortuak diran. Gai au agertzeko zan izlaria gaisorik daukagu, eta bear ba'da urrango urtean aztertu al izango da. Biz-

kaierearen joskera, aditza, iztegia et olako gaiak be artu leitekezan. baiña urrangoarako geratu dira, zergaitik edo agaitik. Dana dala, arloa zabala izan arren, epeak be ez dauka mugarik eta aurrera egiteko bide bat ikusten dogu or.

Agurrik beroena gure irakurle ta adiskide guztiai eta aste orretan alkar-izketa gogotsuetan alkartzeko itxaropana guztioi.

# ALDARE-LIBURUA

## (eta III)

«Gizona» ez da noski sekulan «emakumezko». Askoz egokiago da beste era auetakoren bat erabiltzea: Gizakia, gizon-emakumeak, seme-alabak, senide edo aurrideak, edo neba-arrebak, aita-amak edo gurasoak.

«Orduen Liturgia» liburuan askotan eta askotan dagoanez «gizon, gizonak, gizonen», giza-kuntza bientzako adierazpenean, auxe zeazki aldaturik eta obeturik ematea eskatuko nuke «Aldare-liburua» datorrenerako.

6. Aditz-laburtzea dala-ta, bereizketa bat lenengo, gauzak argitzearren:

- a) Aditz-aditza danean, adibidez: ikusi, ekarri, sartu, sartu, adierazi, ibilli, erabilli, e.a., aditza laburturik ematea ongi dago ondorengo jokaldi auetan: agintezkoan, aalezkoan eta zertarakoan. Onela noski:  
Etor adi... etor aiteke... etor adin...  
Ekar ezak... ekar ezake... ekar dezagun...

Erabikera au ongi dago, lege autsi-eziña ez dalarik ere. Oituzko erabilkera ta oparo erabillia da Ipar-Euskalerrietan, gutxi xeago Gipuzkeraz eta... ia-ia beñere ez Bizkaieraz. Ala ere eman dezagun ontzat.

\*\*\*

- b) Izena eta naiz izenlaguna aditz biurturik ditugu-

nean, bestela dira gauzak. Ona emen adibideak:

Gizon / gizonDU, ikara / ikaraTU, lagun / lagunDU, babes / babesTU, Eta, zuzen / zuzenDU, berriTU, sendoTU, zuriTU, aundi-TU, garbitu...

Onelakoetan beti ta beti laburturik ematea, geiegizkoa da, argitasunaren eta erraz ulertzearen kaltekoa. Aditza osorik ematea, beraz, argiagoa da, osoagoa, zalantzak eta ulertezinak uxatzeko biderik egokiena. Onela adibidez:

ZuzenDU ezazu, sendotu zaitzan, garbitu gaitzazu, ugaritu ezazu, berritu nazazu, sendotu nazakezu, ikaratu itzazu, gizondu dadilla...

\*\*\*

7. ASKO itza sartzen dan guztian aditza batenean erabiltzea, geiegikeria da ta oker askoren iturri. Ona emen bereizketa bat laburki:

- a) Aditz-lagun danean, orduan lasai batenean: «Ardo asko edan du... Au da, ardotik naiz sagardotik e.a. asko edan dua-la adieraziz.

- b) Izen-lagun danean, —talde-izenen bat ezik, «jende asko ikusi dut» bezala—, aditza askorenean jarri bearrekoa da. Ona emen adibide garbiak:

—Lagun asko GERA esaten du euskaldun orok, beraz, ASKO ZERATE, ta era berean, lagun asko dira esan bear eta idatzi ere bai.

Eta gauza bera, zenbakiak erabiltzean eta ZENBAT galdera egitean:

—4 lagun GERA, beraz era berean, 4 lagun ZERATE, 4 lagun DIRA.

—ZENBAT senide GERAN? 4 senide GERA, 5 senide ZERATE, 5 gizon DIRA.

—ZENBAT lagun ZERATE? ZENBAT gizon DIRA?

\*\*\*

Ainbeste mezemaillek egunoroz erabilli bear izango dugun liburua danez; eta oraindik ere areago, millaka «mezentzulek» egunoroz aditu bearra izango duten liburua, ongi baiño obeki zeaztuta ateratzeko eskatzea, ez da geiegizko eskaera. Orregatik, bada, zuzenketa auek egitea eskatzen diet orain agerian edo jendaurrean, leenago beraiei zuzenean eskatu nien arduradunei.

Zuzenketa auek egitez ere aintzat artuko dituzten uste osoan gelditzen naiz eta, laguntzarik bear ba'lute, dezakeguna emateko prest gauzkate.

GAZTAÑAGA'tar Jesus'ek



# SAGUNTO

Sagunto'ko burdiñolaren itxialdia, naste-borraste anditzat agiri yaku. Diruzko eztabaida bat, politikaren arlora eroan dabelako.

Burdiñola osoa, galtzairua len-gaietatik (meatik ta ikatzetik) aterazen dauana da. Kok-lebasailak, meak antolatzeke oleak, sinterketak, laba-garaiak ta galtzairuolak osotzen dabe. Onelako esarkiei, «buruzkoak» deitzen jake.

\* \* \*

Galtzairuolean antziñetakoa bada, ixurketa arrunt bidez sortzen dira totxoak ta basalan-bolutik zear jarraitzan da aurrerabidea. Basalan-boluak nai «blooms» edo basalandu laukotuak, nai «slabs» edo totxo zabalak ateratzen dauz.

Oraingo galtzairuoletan ostera, basalanduak —nai laukotuak nai zabalak— artez-arte, etengabeko ixurkatatik zear urten dabe. Egikera au, antxiñetakoa baño merkeagoa da.

\* \* \*

«Blooms», orrazi burdiña, burdiñaga, trenbideaga ta beste onelako burdiña egiteko, ijeztu izaten dira.

«Slabs» edo totxo zabalak be beroz ijeztu dira ta burduñ-ugelak, xaflak ta txaratillak ateratzen dira. Txaflea artez-arte erabilli leiteke. Txaratillak biurri-aurrerabibea jarraitzen ta otzez ijeztu dira barrero, txaflea meagoa jaditxeko. Txaflea au berebilgintzan ta tximist-indarrezko tresnariak egiteko erabilli oi da.

Margotu edo galbanizatu ta gero, lata egiteko, etxe estalpeko ta abar erabilten da.

\* \* \*

Sagunto'n, burdiñola osoa dago. Urtero milloierdi bat tonelada egin al dau. Onen ondoan otzezko ijezbolua be bai. Au guztiz oraingoa, burdiñ-olea berriz zar-zarra. Burdiñola osoko esarkiak egokera txarrean dagoz, ta baten bat ia ondamenean; adibidez kok-labasailla.

Orregaitik gelditu egin bear da.

Jarraituko dan otzez igez-bolua, España'ko bariena da. Orain amabi urte dala, burdiñola oso eder bat antolatzea asmatu zan. Orduan, urte onetan amazortzi milloierdi tonelada urtero bear izango genduela uste zan. Orregaitik Sagunto'ko burdiñola barriak sei milloierdi tonelada atera al izango eban.

Aipatu dogun otzez igez-bolua, burdiñolako atalezat eraiki zan. Gaur, burdingintzaren aalmenak amabi milloierdi tonelada osotzen dauz.

Baña zortzi milloierdi tonelada xoil bear dogu, nai ta amazortziraño uste zan. Europan zear, erditik bean lan egiten dabe eserkiak. Mundu osoan zear galtzairugintzaren larrialdia aundia da ta.

\* \* \*

Euki ba dauko Sagunto'k etorkizuna. Baña ez burdiñola zarragaz, barriagaz, sei milloidunagaz, baño. Au da urte batzuen buruan. Gaur, burdiñola barria egingo ba'litz, geldituta egon bear izango litzake. Orretarako diruak ondatzea, zorokeria da.

Barakaldo'n ta Sestao'n doguz esarki barriagoak. Orain 1.200.000 tonelada «slabs» urtero ateratzen da, ta 1.500.000, beroz ijeztutako txaratilla. Bi milloierdi urteroko jaditxeko galtzairuola anditu, etengabeko ixurketa antolatu, ta beroz igez-bolua anditu bear doguz xoilik.

\* \* \*

Orregaitik España'k Jaurlaritzak, Sagunto'ko buruzko exerkiak istea erabagi dau. Gure ustez, goian argitu doguzan arrazoiakaitik, zuzen egin dau.

Sagunto izen-gabeko elkargo baten jaubetza ba'litz, aspalditik itxita egongo litzake. Arek eztabaidak ekarri izango leukez. Oraingo eztabaidak aundia goak dira, itxiteko epaiketa, saguntar geienak autaturiko jaurlaritzari egon jakolako.

Ba-dakigu auteskundeak baño len alderdi danak asko aginduten dabe. Sozialistak beintzat, lurreko paradisuaz mintzatzerano eldu dira. Dan illuna ordea au da: Jaurlaritza sozialistak ezin alderatu dau Sagunto'ko langilleen (euren alderdiaren) langabekeria ta miseria.

Carlos IBAÑEZ

## ESKU-IDAIZKIAK

## XXIV GORAPEN-ABESTIA

## XIII sorta

<sup>1</sup>Betidanik Zeu zara Santua [bestea].

<sup>2</sup>Zure misteroen miragarrietan [...]

<sup>3</sup>Zeure eskua erakutsi zenduan [...] zure egintzen bidez.

Eurotan [...]

<sup>4</sup>Egi-agintzak.

<sup>5</sup>Izte betikorako [...] guztientzat; ondamendi osorako [...] <sup>6</sup>Aintza betikoa, atsegin etenbagea aren etxekuntzetan.

<sup>7</sup>Zeuk ezarri dozuzanak.

<sup>8</sup>Gauza guztiak gaiñeratzen dautsezuz espirituen gudarozteari ta zure santuen batzari.

<sup>9</sup>Zeure eskuetan dago dan guztia: lurra ta onek artzen dauan guztia, itsasoak onein sakonetan igitzen dana.

<sup>10</sup>Zeure begien azpian daukazuz beti, betirauna baiño leen ezarri dozuz-ta.

<sup>11</sup>Egintzak zeure aintza azaltzen dabe, zeure aal-izatea agerrezazoten dabe, leen iñok be ikusi izan ez ebana ikuserazo dautsezu-ta,

<sup>12</sup>gauza barriak sorturik, leen egoana aldaturik, betikoa izango dana birrezarririk.

<sup>13</sup>Izan be, Zuk, Jauna, betiko irauten dozu. Jazopenok zeure adimenaren asmo ezkututsuetan sarrerazo dozuz,

zeure izate gurgarria agertzeko. Izan be, zenbat gaintzen dau guzti onek izaki ilkor errukarriak ulertu daikenik?

<sup>14</sup>Zelan aalegindu gaitekez zure ezkutu aundi ta miragarrietan sartzen?

Zer da emakumegandik jaioa zure egintza aunditzar guztien artean?

<sup>15</sup>Zer da uretan oraatutako auts samar bat, pekatuzko zaborra,

<sup>16</sup>espiritu gaiztoak azpiratutako billoiztasun lotsagarria, gaiztakeriari ekiten ba'dautso or' bazartua geratzen dana, geroko gizaldientzako gomutagarri lez?

<sup>17</sup>Utsean emondako zeure laguntzaz soillik geratzen da zintzotuta gizona, zure ugaritasunaz benetan salbatuta,

<sup>18</sup>zeure dirdirak soillik goratuta. Aren atsegiña Shalon betikoan [...]

KEREXETA

## XXV GORAPEN-ABESTIA

<sup>1</sup>[...] zeure errian izan daitena

<sup>2</sup>[...] egian gizon sendoa lez

<sup>3</sup>[...] erruki aundikoa.

Espiritu garbituen iturri [...]

<sup>4</sup>Zure auzietako aldiak arte sendotu diran areik.

<sup>6</sup>Gizaldien gizaldietan zeure santutasuna diztirazoteko

<sup>7</sup>eta zeure ikustearen gizonak laguntzeko

<sup>5</sup>sendotzen dozuz Zuk zure araudiak.

## XXVI GORAPEN-ABESTIA

<sup>8</sup>Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,  
nire biotzean adimena ezarri dozulako,

<sup>9</sup>dongakeriaren aurka ni sendotua izan naiten;  
zeure izena bedeinkatu dagidan;

<sup>10</sup>benetan maite dozuna aukeratzen  
eta gizonagan iguintzen dozunari

<sup>11</sup>gorroto izaten jakin dagidan.

<sup>12</sup>Aren egitadak onaren eta txarraren erara  
dirata.  
Zeu zara ori jakiñerazoten daustana,

<sup>13</sup>zure biozperatasunagaitik  
zeure Alkartasunean sartu naz-ta.  
Santutasun-espirtituaren bidez  
sartzen nozu zure ulertzean,

<sup>14</sup>eta bide geiago egin eta geiago sututen naz  
gaiz takeria egiten dabenen aurka,  
gizon guzurtien kontra.  
Zure ondoan benetan dagoan iñor be ez da  
zure agotik urtendakoaren aurka jagiten.

<sup>15</sup>Zu ezagutzen zaituenak  
ezin gorroto daikeet zure berbai,  
zuzena zara-ta;  
zure aukeratuak zintzoak izan bear dabe.

<sup>16</sup>Zuk edozein zuzenbagekeri ondatu egin dozu  
betiko.  
Zure zuzentasuna izaki guztien aurrean agertu-  
ko da.

<sup>17</sup>Ba-dakit nik zure begien aurrean txarra zer  
dan.

Niganako zure esku-zabal ugaria  
txarraz parean jarrita dakit nik ori.  
Zin eginda beartu dot nire burua  
zure aurka iñoiz be pekaturik ez egitera.

<sup>18</sup>Ez dot ori egingo. Onetan sendo nago.  
Ba-dagoz neugan sinisten dabena.  
Nik lagunartera ekarri dodaz,

<sup>19</sup>bakotxaren ezaguereari dagokionez.  
Bakotxa, berak artu dauan doalen erara  
izango dot maite,  
oiñordetzan erdikide danez.  
Ez dot gaiztoa koipatuko.  
Ez dot dongen bezuzarik gordeko.

<sup>20</sup>Ez dot egia aberastasunagaitik salduko,  
ez naz doairen bategaitik zure erabagietatik al-  
denduko.  
Bakotxa zeure ondoan egon daiten negurrira

<sup>24</sup>izango dot maite.  
Zeugandik urrundu daiten negurrira  
iguinduko dot.

<sup>22</sup>Ez naz Belial'en gizonakaz batzarra egitera  
sartuko,  
zure itunpenetik banandu egin ziran-eta.

KEREXETA

# BASERRI MIÑA

*Euskalerriko baserrial  
Joan diran gisaldiz ornitua!  
Aldien igarotzaz bat  
loak artual!*

\* \* \*

*Zure orma ezeak  
negarrez ditxaroe,  
gero baten aurkeztuko jatzun  
pozaldial!*

\* \* \*

*Or, bide-erdian,  
agertu oi ziran  
gure arbasoek landatutako  
zugaitzen artean!*

\* \* \*

*Bertan atsedden-tokia  
eurak zituan  
ya atarteko arlosetan  
neke-arnasak poztuten!*

\* \* \*

*Gaztelu zintzoa,  
nire gogoaren sendotasuna  
euskal endaren laba gorria  
gogor eta ekinkorra!*

\* \* \*

*Zure suetearen berotasunez,  
Ke-zulo epelaz,  
zure semeak lorturiko  
gure endaren ezaugarria!*

\* \* \*

*Aspaldi baten  
zure kerizpea itzirik,  
ta amatxuri  
maitekor besarkada emonik,  
zugandik itun  
aldendu egin nintzan  
aita ere ia  
negarrez lagarik!*

\* \* \*

*Urrun-urrunean  
lur atzerriko artan  
zure aritzen  
eta taloz beteriko arnasan  
kortako, zurezko  
ta artoen usaiñaz  
mire barneko muiñak  
egurastu oi ziran!*

\* \* \*

*Ametsetan, aizeak  
abar-artean txistuz ziarduan,  
ta abel-gorrien arran-otsak  
ortzean edatzen,  
ta ate zaarraren arat-onaten  
negar-antziak,  
ta sagu ziztriñen  
ortzikadak zenbatzen.*

\* \* \*

*Biotzkatu gabe ta adorez gaiñezka  
burrukatu neban;  
ta itxarrik bait-nintzan,  
euskal-baserri eder,  
zure kerizpean  
zotinka negarretan  
zeure zori txarra  
gogoratu nuan.*

\* \* \*

*Barrero emen nozu  
baserri arrilanduak  
barne-garrez  
launtzen  
so egiñaz goi-beak  
aterpe maitekorra  
betiko billatzen.*

\* \* \*

*Nekaturik naukazu  
arnas-otsa igasiz  
bular-muiñetatik.  
Zugan pakea idoroz  
Jaunaren esker onez,  
betirauna itxaroz  
ordua eltzerakoan  
Poztasun-gar biziz.*

Erderaz: Nemesio Raloso Uriarte'k  
Euskeraz: Arregi'tar Josu'k



# EUSKALERRIKO SANTU ETA DOATSUAK

## (Jarraipena)

Lorailak 11

### DOMINGO ITURRATE DOATSUA

Doatsu au, 12 neba-arrebetatik lenengoa, Dima'n jaio zan, 1901 urtean. 13 urte zituala, Algortako'ko Trinitarioen ikastetxera joan zan, erriko eskolan ikasitakoa osotzera, eta andik Kantabria'ko «Bien Aparecida» santutegira lekaide izateko asmo biziz.

Botoak egin ondoren, gazte zintzoa eta buru-argia zalako, bere nagusiak Erroma'ra bialdu eban filosofia eta teologia egiteko, «Gregoriana» deritzan Eleiz-ikastetxe izen andikora.

Bere Meza barria 1925 urtean emon eban, baiña bereala birietako «tuberculosis» gatzak jota, Belmonte'ra (Kuenka'ra) bialdu eban, ea ango aize garbiak bere osasunari on egiten eutson... Urte osoan bere gaisotasuna alai eta pazientzi andiaz eroan ondoren, bertan il zen, bere santutasunez etxea bete ondoren. Orain bere gorpuzkiak Algorta'ko Trinitarioen eleizan gordetzen dira.

Bizkaitar doatsu gazte au, txikitandik maitagarria, garbia eta bere ingurukoen eredu izan zan. Bere santutasuna onetan dago: eguneroko lan eta bearrak, Jaungoikoaren maitasunez, alik eta ondean egin eta betetzean.

Lorailak 13

### MIKEL GARIKOITZ SANTUA

(Garikoitz eta Garaikoetxea abizen bardiñak dira).

Euskal santu au Benafarroako Ibarra erritxoam jaio zan, 1797 urtean, Baiona'ko eleiz-barrutian.

Bere gurasoak baserritar beartsuak ziralako, Mikel'ek bere eskolako lanak eta solokoak txandaka egin bear izan ebazan. Gazte gogorra osasunez, argia buruz, eta iraupen andiko zalako, soloan lan egitea, mendian ardiak zaintzea eta eskolan ikastea, alkartzen ondo ikasi eban.

Meza barria emon ondoren Kanbo'ko parrokira bialdu eban, ango Erretore edo Txaunburu zarraren babespean arimak zaintzen ikastera.

Gero Betharram'en seminarioko irakasle eta gazteen zuzendari izan zan.

Bere eskuartetik ainbeste abadegai igaro ziran, geroago bere lande izango ziranak. Betharram'en sortu eban «Jesusen Biotzaren abadeak» izaneko alkarte. Eleizgizonen kongregaziño au laster zabaldu zan Europa'n eta Ameriketean, batez be Arjentina'n, ango euskaldunai laguntza emoteko, bai ariman, baita kulturaren eta gizon-izate ikastean.

Mikel Garikoitz Betharram'eko santutegian il zan 1863 urteko loreillaren 14.

Loirailak 16

### ANDRES HUMBERTO FOURNET SANTUA

Santu au ez da jaiotzez euskalduna. Frantzia'ko Maillé errian jaio zan 1752 urtean.

Frantzia'ko Iraultzak bere erritik bota, eta Naparroa'ko «Los Arkos» errira etorri zan, eta emen bost urtetan eliz-lanetan jardun eban, santu izen andiz.

1797 urtean Frantzia'ra itzuli aal izan eban, eta Isabel Bichier andra santuaz batera «Gurutzeko Alabak» izeneko kongregaziñoa sortu eban, gazteak eta gaisoak zaintzeko lana bere gain artuz.

15 urte emon ebazan Kongregaziño oneri laguntzen, eta 1834 urtean il zan.

Lorailak 25

### BIZENTA MARIA LOPEZ BIKUÑA SANTUA

Emakume santu au Naparroa'ko Kaskante errian jaio zan 1847 urtean.

Bere bizitzako ardurarik andiena neska gazteai laguntza emotea izan zan. Orretarako «Maria Sortze Garbiaren» kongregaziñoa sortu eban.

Bere alabak mundu guztira laster zabaldu ziran, ikastetxeak, lan-eskolak eta beste edozelango laguntza neska gazteai eskeintzeko asmoz.

Madril'en il zan, eta Paulo Seigaren Aita Santuak Santuen artea jaso eban 1975 urtean. Euskalerriko santu guztien artean, au dogu santuen maillara igondako emakume bakarra.

Jarraituko dau,  
GOIKOETXEA'tar Iñaki

## AZKATASUNEN ARGIA

*Euskaldunei argia joan jaku,  
noiz etorriko ete da?  
Argi barik ezin dogu,  
zorion bizi izatea.*

*Azkatasuna gure argia,  
izan eta izango da;  
illumpean bizitzea,  
ez da gure egoera.*

*Gartxo bat daukagu ondiño,  
gar ta itxaropena da;*

*eukiten bitartean,  
ez gara guztiz lotuta.*

*Euskera da gure garra,  
zaindu daigun euskera;  
geure-geurea dalako,  
eta ezina kentzea.*

*Gordetzea ez da naiko,  
geiagotu egin bear da;  
bakoitzak bere eraz,  
euskalki guztietan.*

*Guztiok jakin bear dabe,  
aberatsak garala;  
eta aberastasun ori,  
gure izkuntza dala.*

*Bai Guipuzko ta Bizkaia,  
Zubero ta Naparra;  
Laburdi eta guztiok,  
egin daigun euskeraz!*

*Ez baña berba batuaz,  
guzikeria da ta;  
eta danak ulertzeko  
iñoiz ez da izan bear.*

PALMI'k

## EUSKERA MAITE

*Nire maitasunik onena zu zara,  
lagun danetakorik obena zu zara;  
zu zara bai azkatasuna,  
zu zara be edertasuna.*

*Ezagutu zindudazan egunean,  
lenen maitale izango ziñanik ez  
nekian;*

*Urteak zear ta, alkaturikan,  
illarteraiño loturik gagoz biok bi-  
zitzan.*

*Zeuk garbitu dozu nire biotza,  
zeuk alaitu dozu nire bizitza;  
zeuretzako izango da nire maitia,*

*zeugaitik argitu jatazan egun gu-  
tiak.*

*Eldu zintzatanetik, euskera ku-  
tuna,  
nirengan sartu zan sendotasuna;  
Zurengan ez dago zikinkeririk,  
dana jakitun eta garbirik.*

PALMI'k

## MAITASUN - EGARRIA

*Umetandikan daroat neugaz  
maitetasuna biotz barnian,  
maitasun onen jarraian dabil  
nire biotza une guztian.*

*Amets gozoak sortitzen daustaz  
maitasun onek biotz-barruan,  
maitasun onen kilikilia  
nabaitutzen dot neure goguan.*

*Maitasun ona, garbi-txukuna,  
jaungoiokozkoa nik daukadana;  
Jainkoarentzat bakarrik bat-du  
nire biotzak maitasun dana.*

*Jaungoikoaren billaka dabil  
nire biotza amets ez-titan,  
maitale onen oiñatza dakust  
beti alde ta une guztietan*

*Gau ta egunez atsedean gabe  
matale onen billaka nabil,  
asetuko naun iturri onen  
billa ioranak beti narabil.*

*Maitasunaren egarri naz-da  
egarri ori asetutzeko  
nire gogoak usoak legez  
egaka nai du igon gorago.*

*Gorago nai du gaxiak igon,  
maitalearen loabi gozora,  
t'ezin egatu, ezin da igon  
berak nai leuken toki artara.*

*Mundu-loturak dauke gaxoa  
estu-gogorki lurrari artua  
lotura orreik askatu arte,  
ezin eduki Jainko altsua.*

*Maitagarri ta bere tarteko  
laiño baltz orreik ezik urratu,  
ezin du goruntz egaka egin,  
Maitearekin ezin da batu.*

*Nai ta ezin du goruntz iñola,  
ezin goratu bere egoak,  
Maiteak Berak urratu bear  
lotuia dauken kate sendoak.*

*Une aretan azti-pozetan  
astinduko dauz bere egoak,  
ta urbilduko da Maiteagana  
ta asetuko dauz amets gozoak.*

*Aurrera bada, ene gogoa,  
bizitza - zear amestean beti:  
amets gozotik esnatutzean  
ase dagizun egarri ori.*

GOIRIA'k

# KARLISTEN BIGARREN GUDEA

Bizkai'ko Agintariek, gudako Aldundegian eskuartu izan ebe-  
nak, batzuk, Urkizu ta Orue'k lez  
Erregea'ri parkamena eskatu eu-  
tsoen.

Eta zegaitik? Txarto egin eben  
ala, Amorabirebietako Ytunbena  
izenpetuaz? Olan ez eban erizten  
Arginzoniz'ek.

Onek eta bere semeak buruan  
ondo erabillen esanz: Erregeak  
txarto egin dauanari parkatu leio,  
baiña Erregeak errege izanik be,  
bere eginbearrak zapaldu barik,  
ezin esetzi, epaitu leike errubakoa,  
ta eskatu - azo geroago, aren zuri-  
keta entzun baga, eskabide apal-  
kuntza.

Parkaziñoak Andikiaren biotz-  
zabala argiratu lei, baiña inoiz ez  
salatuaren erru-eza.

\* \*  
\*

Arginzoniz-en apalkuntza zer-  
tzelada giro aretan, izango zan, ez  
ain zuzen be, menperatze egoki  
bat On Karlos'eri bai obeto onen  
eritxi osoan erri-araudi erakun-  
deak iztea.

Bizkaitarrok olan uste izan  
eben, Agintarien eredu zan lez,  
Arginzoniz, atxe bako Lendakari  
adoretsu zintzo kristiñau polikari  
on-ona orain Bizkaiak zoritxa-  
rrez aren antzekorik eztaukona.

Bizkaitar guztiok bigiratu bear  
dogu ezin ukatu leitekezela politi-  
ko talde bategaitik euren antxiña-  
ko Foral Erakundeak, ezta aitzu  
oneik zainduten, aldi-giroak itxi-  
ten deutsoen beste aldabean era  
obenez.

\* \*  
\*

Arginzoniz'ek ezaban artu gura  
erre-mesede edo onartzerik bere  
arriko Foru ta Eskubideai kalterik



errege-mesede edo onartzerik bere  
erriko Foru ta Eskubideai kalterik  
ez egitearren. Guda Aldundegi'ko  
aren lagunai, On Karlos'en atsegi-  
ñean sartu ziranai ta poz emon eu-  
tsoenai zer jazo yaken? Euren us-  
tez lortutea aregandik gura ebena.

Baiña jadetsi, lortu eben?

Bai zera! Gernika'ko Orokor  
Batzarrean Urkizu Jauna Ordez-  
kari (Diputadu) izendatuz izan za-  
nean, eta Erregea Zornotza'ra el-  
dutean, Urkizu'k aginte ori lengo-  
ratu egiola eskatu eutsen, baiña  
Erregeak ez euston ixillik geratu-  
azo.

Eta Amorebieta'koak On Kar-  
los Erregea'gaz adiskidetu izan  
arren bitartekosuna ta zer-ikusia  
galdu eben, eta On Karlos'en erre-  
getxean irri-barre ta iseka egiten  
eutsien, iraiñ-idazkia zabalduta  
*Los Nuevos Muñagorris* deituaz.

Eta ezin eben galerazo, Foruen  
urraiñ, gitxi critxiz, Amorebieta'-

ko arerioen buru izan zab Abade  
Goiriena'ren autamena au Ordez-  
karia izateko.

Alanda guztiz ba 1875'ko bagi-  
llaren 21'ean Orduña'ko Errege  
Agintza urte zan iñoana: «Guztiz  
zintzo ta Leial Jauneri onen Al-  
kate ta beste Aginteduneai... au-  
rreratuten yake... asarre, biurraldi,  
eztabaida gogor eta matxinadai  
indarra artzen izten ba-dautsie...  
gure talde lerroetan, zigortuak  
izango direala gubernu alfonsota-  
rren eragille balira lez». Orduña'-  
ko Errege Agintza ta Burdeao'ko  
agiria begiratu ta bardindu gura  
dauanak Arjona'k egiñiko mal-  
tzurkeriak ikusiko dauz Bizkai'ko  
guda Aaldundegikoak saltzaille  
agertu eitezan, eta aienaka jardun-  
go dau griña txarrak itzuturazo  
leikean Amorebieta Ytunbena'ko  
gizonek Guda Auzitegi batek  
epaitu egiazaia ez itxiteraiño.

LETONA'k

## BIZKAIA NIRE LURREKO MENDIAK

MIGUEL DE UNAMUNO  
(Poesías Escogidas'tik euskeraturikoa)

*Nire lurreko mendiak  
itsasoan dira begiratzen  
ta, soiñakotzen daben aritzak  
kresala dabe arnasten.*

*Nire lurreko itsas ezikaitzak  
mendiak dauz seaskatzen,  
ta eurek lo dagie nabaiturik  
itsasoa barruratzen.*

*Oi, nire itsastar Bizkaia,  
ain menditsua dan lurra,  
zure gallurrak zerua dabe musu-  
tzen  
ta itsasoak zaitu laztantzen!*

*Zure itsas sakon ta zure mendiak  
daruadaz nik neuk neuregan,  
adaburua emon eustazun zerue-  
tan,  
erroa sakontasunean.*

MUNIATEGI-tar Sabin

## A R T O G I

RAMON DE BASTERRA  
(La Sencillez de los Seres)

*Urre zaardun ogia, txiroaren euzki gozo,  
ori-gorri ta makur, kobrezko azpil antzol*

*Abarkak eta maia liñoazko zamau barik:  
itxasoan seme bat, beste bat bideturik.*

*Negar dagin burdia eroaten dauan butzain.  
Artozko illargia erretzen sutan pinpirin!*

*Baserritar mundua jaten dozuna urun  
gorria, ikusiz euri urradurak zerun.*

*Uragaz, aizeagaz, osasuna, sugarra,  
zure bularrak maite dauan izadi, larra.*

*ta, IDAZTEUNAK diñon lez artez, oker gabe,  
Biotz apal, otzanak dira Lurraren jabe.*

MUNIATEGI-tar Sabin.

## TXABOLA MAITEA

*Gure Patxi maiteak  
artzaintxo len zanak  
diñosku zintzo zer zan  
txabola laztana*

*Elorrion, Aldape  
Aldapen mendi bat  
Lubarri dau izena  
gogamen bai berak.*

*Antxen dago txabola  
ardien aterpe  
gaba ta ekaitzetan  
eskutu, estalpe*

*Antxe nik gau askotan  
neure lan atsedean  
ardik eratziz lenen  
bakardade arren*

*Eskolatik urtenda  
neure marmitagaz  
igoten menditara  
irrintzi santzokaz.*

*Ardiak batu ditut  
ortik ta emendik  
sartu ditut txabolan  
bai naiko nekerik.*

*Tirrin txarran esnea  
neure topiñera  
urrengoan gaztaikin  
beterik otzara.*

*Lau makillen ganean  
sapaitxo bat dago  
lasto eta irakin,  
olan bigunago.*

*Bertan etzunik gogoz  
lotara ni noa,  
ardin arran ausnartzek  
lo abestitxoa.*

*Zenbat ames erruge  
gau bakar areitan  
gero zer izango ni  
dot buru barruan!*

*Bitzitza zee orretan  
asi nintzan garbi  
gerorako asiaz  
ni amesez pozik.*

*Goizaldean ostera  
ardik eratzirik  
neure etxera noa  
abestiz beterik*

*Txabolatxo maitea  
zutirik ondiño?  
nire oroi gorpuzkin  
zarala gaurdaño.*

*Arek egun pozgarri  
ioan dira arin  
oraingo zartzaroon  
arein nik maitemin.*

*Orain irrurogeta  
amar bat urtetan  
olako bizia zan  
artzaintxo guztitan.*

*Bizi era aldatuz  
gaurko agunetan,  
poz garbirik gutxitan  
artzain biotzetan.*

GALLASTEGI'k



# GAZTETXUAK

## GAZTETXOEN ZALANTZAK ERLIJIÑOARI BURUZ

Danak dakigu, gztetxoak ume izatetik gizon-emakume izatera aldatzean, «krisis» edo kinka latzak igarotzen dabezala.

Txikitan, aitak eta amak esandakoa, beste barik, sinistu egiten da, baina bein 12-13 urtetara eldu ezke-ro, gztetxoak euren buruz pentsatzen asten dira, eta salatza andiak sortzen jakez barruan, bai erlijiñoari, bai gizarteari, baita euren etorkizunari buruz...

Krisisko adin onetan gztetxoai laguntza emoteko biderik onena, euren egiazko autormenak jakitea izango litzakela uste dot. Ara emen.

### 1. AUTORMENA

«Ni askotan jartzen naz pentsatzen, nok egin dau mundu au? Ildakoakin zer gertatzen da? Beste mundu bat ete dago? Edo iltzen zara, eta «bale»... Bakotxak bere erara pentsatzen dau. Nik ez dot erantzunik billatzen. Nik dakidana au bakarrik da: bizitza onen ondoren zerbait egon bearko dauala, eta iltzen garanean beste zerbait, guk ez dakiguna, ba dagoe-la».

**Aintzane. 14 urtekoa.**

### 2. AUTORMENA

«Nik ez dauzat bizitzari zentzunik aurkitzen. Nire itaunik latzena au da: guk zer dakigu Jaungoikoari buruz? Eleizan errezatzen kantatzen asten nazanean, iruditzen jat, ez-ezagun bateri kantatzen diardudala. Orregatik itxita nago elizara joateari. Ez da batzuk pentsatzen daben legez, eleizara ez joan, eta gizon andiagoa nazala. Ni ez naz eleizara joaten zentzunik ez dauzadalako aurkitzen».

**Ander. 15 urtekoa.**

### 3. AUTORMENA

Nik 7 urte nituela ez nekien zer zan Jaungoikoa. Errezatzen bakarrik nekien amak irakatsi eustalako.

Gero dotriñara joaten asi nintzanean, apurka-apurka, Jaungoikoa nor zan ezagutzen asi nintzan. Askotan esaten neuntsan amari: Ama, esaidazu, nor eta zelakoa da Jaungoikoa?

Gero, Biblia irakurri, eta geiago ulertzen asi nintzan... Baiña Oraindik ba dodaz itaun batzuk neure buruari egiten dauzadazanak: Zer dago il ondoren? Zerua ba dala egia ete da?

Mezatarra igandero joaten naz, baiña ez dot ezer ulertzen. Autortzera be joaten naz, baiña ez jat gusatzen. Iltzeko bildur naz, beste aldean zer dagoen ez dakidalako. Gaiztekeriren bat egiten dodanean pen-

tsatzen jartzen naz, zer pentsatuko eta dau Jaungoikoak? Gaiztoa nazala? Eta abar...»

**Nekane. 14 urtekoa.**

### 4. AUTORMENA

«Leire 14 urteko neska gaztea da. Bere gurasoak aspalditik nire gurasoen lagunak dira, eta nik eta Leirek txikitandik alkar ezagutzen dogu.

Leengo udan Leire'ren etxean egon nintzan oporrrak pasatzen. Goizean jagi eta biok paseo bat egitera joaten giñan.

Bein leire'k esan eustan:

«Jone, gaur igandea da, baiña ez noa eleizara. Nire eskolakoak ez dira joaten. Nik ez dot Jesusengan sinisten».

Nik esan neutson.

«Zergatik ez? Ez da. bada, Jesus gu il ondoren zerua emongo deuskuna?».

Eta Leire'k niri:

«Nire eskolan ez da iñor Jesusen aldeko».

Ni ikaraturik gelditu nintzan Leire'ren pentsakeraz, eta etxera joan nintzanean gure amari kontatu neutsan eta gero gure amak Leire'ren amari.

Orain denpora gitxi, Leire'ren eskutitz bat artu dot, eta onela diño: «Nire lagun Jone: Nire gurasoak beste eskola batetara aldatu nabe, eta oso pozik nago emen. Danak sinisten dabe Jaungoikoagan, eta orain fededun nazan ezkerro bizitzeko gogo andia dot, iltzen nazanean zeru eder bat eskuratuko dadon itxaropenez».

**Jone. 15 urtekoa.**

### 5. AUTORMENA

«Orain esango dodana benetan jazotakoa da. 13-14 urte zituela nire lagun bat pentsatzen asi zan, bizitza onen ondoren besterik ba ete zan edo ez. Bildurrez zegoen iltzeko, eta egun batzuk oso latzak pasatu zituan, negar eta negar. Amak esaten eutsan, zergatik egiten dozu negar? Eta erantzunik ez...»

Nik zerbait laguntzeko, esan neutson: Iratze, joan zaitez abade on batengana, eta berak legunduko deutsu... Eta joan zan, eta sakon eta garbi berba egin ondoren, lenengo eguna naiko ondo pasatu eban, Jarraitu eban joaten, eta azkenean krisialdia pasatu jakon. Bere amak be asko lagundu eutson. Orain ez dauka bildurrik iltzeko, eta zoriontsu bizi da.

Nik neure begiekin ikusi ezik, ez neban sinistuko ain krisialdi gogorra gazte batek auki leikenik. Nik uste neban neska a tristuraz il egingo zala.

**Idoia. 16 urte.**

**GOITARKI**

# GUREAN DABIL EUSKEREAA!...

«Pobreak ezin dira il». Auxe erderakada itxucia baizen zentzunbakokeria irakurri neban or zear abertzale-izenean dabillan aldizkari baten, izki aundiekan arro-arro idatzi-ta. Il eziñik zirean ezeukiak nungoak edo zeintzuk ete-zatekezan oldozten jarri izan nintzan, aditz-erabilkera oker au irakurri izan nebanean.

Auxe be idatzi izan eban, egunkari baten, euskel-irradi ta irrati-kuskiñeko esatariak «Real academia»'ren esanetara zuzen ez dabizala-ta salatu ondoren, Euskaltzaindiko batek: «edariak eta produktuen marka bereziak *ezin dira* beste izkuntzetara pasatu...» (neuk bekaldeu dot). Beste *el batua* —zale batek bere, euskel-irradi ta irrati-kuskiñeko esatariak Euskaltzaindiak ontzat emondako itz eta abarri etxaramon egiñik diarduela-ta, aulan, egunkari bere-tan: «...euskara eman nahi duenari EGA eskatzen zaion bitartean, *hori ezin dut* onetsi». (Au be neuk bekaldeu dot). Nori zuzendu eragin dagikeoe, ba, izkerea, aditzak erabilten ez dakien «euskeltzain» eta enpaiduak?

\* \*  
\*

Eta auskel-irratian eta ikustirratian? Lotsagarria! Euskerearen

kaltegarri direan amaikatxu aditz-erabilkera ta enpaidu aizeratzen dira. Erri-euskera jatorra, benetako, bai gipuzkerea ta bai bizkaiera, ondatzen diarduela uste daiteke.

Gure alkartze-bideetan sartu ekiguzan (yakuzan) esatariak, ez itzultzaileak batek bere ez dakie, ba, jakin bear leukeen beste euskera ez gitxiagorik bere; eta ganera, ez dauke bat bere euskel-senik. Eta, bardin, oraingo idazlerik geienak bere. Zuzen egoan euskeldun barriak ez leukeela, ezegaitik idatzi bear, euskeraz, esan ebana. Mesede baiño kalte geiago egiten diardue, ba, gure berbeteari, euskera-arloan oraingoan diarduen geien-geienak.

Leenago bere iñoz idatzi izan neban *oraiñaldi* ta *oraiñaldi aldakorrek* direan aditzen erabilkerea dala-ta: Entzun eta irakurten direan erderakadetan itxusienak eta baztergarrienak doguz izan bere, ba. Gitxi-gitxi batzuk kenduz gero, iñok bere ez daki, tamalez, autuan dabildazan aditzok bereizten: ez «Real academia-koak», ez irakasleak, ez idazlerik geienak ez irrati irrati-kuskiñean diarduen esatari ta itzultzaileak. Mingarria!

\* \*  
\*

Besteak beste, lotzagarria baizen kaltegarria dogu, ba, or zear darabillezan aditz-erabilkerea ta abar. Aurrez entzun oi dira: «ezin *da* sartu», «zein *dozu* egin», «ezin *dogu* esan» eta abar eta abar. «Ezin sartu *da*» «ezin egin *dozu*» ezin esan *dozu* sartu eziñik, egin eiziñik edo esan eziñik ba-diardue; baiña, *zioen bategitik* ba-diardue sartu eziñik, egin eziñik edo esan esiñik, ezin sartu *daiteke* (*leiteke*), ezin egin daikezu (zeinke), ezin esan daikegu (geinke). Euskeldun barri ta erdereaz kutsututako euskelduneri errez urteten dautse olango erderekadakan baiña idazkeran ez dot uste oker nadirik egin dagikeenik zoli ibiliz gero, beintzat.

Mingarria dogu, ba, izan bere, erri-euskerea bazterturik *el batua* lorrin orreri indar egiten ekin bearra asi agintari, *irakasle* ta euskerearen ezkutak ikasteko gei ez direan euskel-sen bagako geienak. Oba leukie lorrinkeri kaltegarriak itxi ta euren alderdietako euskera jatorra ondo-ondo ikasi ta erabilten aleginduko bilira. Bai, orixe!

Puxana jaunak be idatzi izan dau aditz-erabilkera au dala-ta; baiña jaun onena irakurri baiño len eginda neukan lan au.

AURRAITZ.

# ATXAKIRIK EZ, MESEDEZ

*«Atxakiak asmatu ziraretik, ergelak amaitu ziran».*  
(Mexiko'ko esaerea)

Atzerraldian Ameriketa'ko baltzu baten saltzaille lez bear egiten asi nintzanean, orduko zuzendariak esan eustezan ondorengo berbak niretzat akullu bat izan ziran:

«Atxakirik ez, mesedez' Atxakiak ez dabe balio, atxakiak ezetarako ez dira gauza, beste saltzailleak saltzen dabe, ta zuk bere saldu egin bearko dozu».

\* \* \*

Berba orreik nire bearrean mesede andia egin eusten... Orregaitik iñoiz ez dodaz aztu, ta baten batek esaten daustanean: «Nik ez daukat astirik euskera ikasteko», beingoan erantzuten dausat: «Atxakirik ez, mesedez! Atxakiak ez dabe ezetariko baliorik! Beste batzuk ikasten dabe..., zuk zergaitik ez?

Astirik ez? Ikasteko gogorik ez!, ba alperrak dira bakarrik ezetarako astirik ez daukienak... Besteak —benetako euskaltzaleak diranak— zaletasunez eta gogo berroz aurkitzen dabe astia euskera ikasteko.

\* \* \*

Euskera ikasteko ba, benetako gogo, benetako naimen edo borondatea bear da... Gizon batek balio dau, bere naimen edo borondateak balio dauana.

Borondate bakoak, gogo aul edo urria daukienak, atxakiak baiño ez dabez ipinten edozer egiteko ta ikasteko, baiña kemen ta gogo bizia daukienak, atxakiak alde batera itzita, ekiñalean alegintzen dira gauzak egiteko, baita euskera ikasteko, batez be euskaltzale ta abertzale zintzoak ba'dira.

\* \* \*

Eta oneik izaten dira ikasten dabenak... Gizaldi asko igaro dira Virgilio'k esan ebanetik: «Al dabe, al dabela pentsaten dabelako». Baiña berba oneik gaur egun bere orduko balioa dauke.

Beti esanda: «Gura izatea, al izatea da»... Gura dauanak geiago egiten dau, al dauanak baiño, borondatea da ondorio onerako oingai!

Atxakirik ez ba, mesedez, euskera ikasteko. Alegiña egin barik, iñok ez daki zer egiteko dan gail

\* \* \*

Baiña, ori bai, gure euskerea, euskera bizia, beti euskaldunak erabilli dabena, bai etxean eta bai ka-lean.

Eta Bizkaitarra ba zara, edo BIZKAIERA egiten dan Gipuzkoa ta Araba'ko erriren batekoa ba'zara, BIZKAIERAZ berba egin bearko dozu... Orregaitik alegindu BIZKAIERAZ ondo ikasteko, ta ez dakienak alperren atxakia: «Nik ez daukat astirik euskera ikasteko» ez ipiñi, mesedez. Atxakirik ez, mesedez'... Benetan Aberria maitatzen ba dozu, benetan Euzkadi'ren askatasuna gura ba'dozu, gogoz alegindu euskeraz ikasten, ba Sabin'ek esan ebanez: «Euskereak gaizkatuko gaitu».


BILBAO'TAR JON E'k.

EUSKERAZALEAK

# VZAR

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia